



ESPETXEETAN PRESO DAUDEN EDO DEPORTATUTA DAUDEN PERTSONEN FAMILIAKOENTZAKO BANAKAKO GARRAIO- LAGUNTZAK.

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2000/11/27an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2001/02/23an

ESPETXEETAN PRESO DAUDEN EDO DEPORTATUTA DAUDEN PERTSONEN FAMILIAKOENTZAKO BANAKAKO GARRAIO- LAGUNTZAK.

1.Xedea.

Espetxeetan preso dauden familiartekoak, edo deportatuak familian dituzten Bergarako bizilagunei joan-etorrietarako banakako dirulaguntzak ematearena arautzea da araudi honen xedea. Preso horiek dauden espetxeetara joan-etortzeko aldizka egiten dituzten bisitaldiek presoen familiartekoei edo deportatuei beste estatu batzuetan bizitzekoak familiartekoei sortzen dizkieten gastu handiak estali nahi dira dirulaguntza horien bidez, hein batean behintzat.

2.Presoen familiakoentzako dirulaguntzen onuradunak.

Zigorra espetxeetan betetzen duten presoen familiartekoek jaso ditzakete dirulaguntza hauek (konkretuki, senar-emazte edo bikote estableak, seme-alabak, gurasoak eta anai-arrebak), honako arau hauen arabera:

—Presoen familiartekoek Bergaran egon behar dute erroldatuta dirulaguntzaren eskaera aurkezten den unean.

—Presoak ere Bergaran erroldatuta egon beharko du edo hemen jaioa izan.

Edozelan ere, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak ahalmena izango du, izan litezkeen kasu berezi guztiak aztertu eta erabakitzeko.

3.Dirulaguntzak emateko prozedura.

Prozedura honetara egokituko da banakako dirulaguntzak ematearena:

1. Laguntzaren eskaera.
2. Gizarte Laguntzailearen proposamen teknikoa.
3. Dirulaguntzak emateari buruzko aldeko edo kontrako diktamena.
4. Organo aginpedunaren erabakia.

4.Dirulaguntzen eskaera

Arautegi honetan arautzen diren dirulaguntzak jaso nahi dituzten pertsonak, eskaera bete eta aurkeztu behar dute udaletxean, hartarako emango zaien inprimakian, eta horrez gain, horrekin batera dokumentazio hauxe erantsi behar dute:

- a)Nortasun Agiriaren fotokopia.
- b)Presoaren Jaiotze-akta baldin eta Bergaran erroldatuta ez badago.
- c)Elkarbizitzako unitateko kide guztien arteko diru-sarrerak jasotzen dituen dokumentazioa. Araudi honetarako, elkarbizitzako unitatetzat hartuko da, eskatzailearen helbide berean bizi diren pertsona taldea (aurreko urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren deklarazioak).
- d)Elkarbizitzako unitateko kide guztien azken nomina edo pentsioari buruzko agiria.
- e)Zinpeko adierazpena, udaletxean emango den ereduaren arabera. Hauek jasoko dira hor: Elkarbizitzako unitateko kide guztiek dituzten ondasunen titularitatea, finantza entitateetako diru-kontuetan gordailuak eta beste finantza aktiboak. Eta horrekin batera dagozkion egiaztagiriak erantsiko dira.
- f)Medikuen txostenak, gastu kengarriak sortzen dituen elkarbizitzako unitateko kideren bat gaixorik izanez gero.
- g)Izanez gero, aparteko gastuak egiaztatzeko agiriak.

BERGARAKO UDALA

Espetxeetan preso dauden edo deportatuta dauden pertsonen familiakoentzako banakako garraio-laguntzak.

h)Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak beharrezkotzat jo dezakeen beste edozein dokumentazio.

i)Edozelan ere, Araudi honetan zehazten diren laguntza ekonomikoen eskatzaileek N.A.N.aren fotokopia eta presoaren jaiotze-akta bakarrik aurkezten badituzte, eskubidea izango dute presoaren familiarteko guztientzat 9. puntuari ezarritako gutxieneko laguntza jasotzeko, betik ere arautegi honetako 2.puntuari jasotako baldintzak betetzen badituzte. Preso bakoitzeko eskaera bat bakarrik egin ahal izango da. Beraz, presoaren familiakoek erabaki beharko dute nork egiten duen eskaera. Eskaera egin duena izango da dirulaguntza-
ren erabilera zuzenaren erantzule, dirulaguntzarako eskubidea badute, eta Udalaren aurrean familiaren ordezkari dirulaguntza hauekin zer ikusia duen edozertarako.

5.Gizarte laguntzailearen txostena.

Aipatu dokumentazioa jaso eta aztertu ostean, dagokion proposamen teknikoari egingo du gizarte laguntzaileak. Dirulaguntza emateko dagokion edo ez dagokion jaso behar du txosten horrek, eta zein kopuru dagokion ere bai.

6.Batzordearen diktamena.

Gizarte Zerbitzuetako batzordeak aztertuko du gizarte laguntzaileak egindako proposamen teknikoari, eta aldeko edo kontrako diktamena emango du.

7.Erabakia.

Udaleko organo aginpidedunari bidaliko zaio Gizarte Zerbitzuetako batzordearen diktamena, dirulaguntza emateko eskaerari buruz erabaki dezan. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa jasoko du akordio horrek, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio.

8.Ordainketa.

Dagokion dirulaguntzaren ordainketa hileroko egingo da. Ordainketa egin aurretik, familiakoak preso dagoen expetxera bidaia egin duela justifikatu beharko da, ahal denean. Hala izan ezean, adierazpen bat aurkeztu beharko da azalduz eskatzaileak edo familiako beste batek bisita egin diola preso dagoen senditartekoari, azken kasu honetan zehaztu beharko delarik nork eta zein adeitasun duen presoarekin.

9.Elkarbizitzako unitatearen diru-sarrera garbiak zelan kalkulatu.

Honela kalkulatuko dira onuradunek eskubidez jaso behar dituzten dirulaguntzak:

9.1.Diru-sarrera gordinak zenbatzea:

Elkarbizitzako unitatearen diru-sarrera moduan hauek kontabilizatuko dira:

- a)Elkarbizitzako unitatea osatzen duten pertsona guztien diru-sarrerak.
- b)Espainiako Diruetxean indarrean dagoen interesa ken 2 puntu, finantza etxeetan edo beste finantza aktibo batzuetan gordailuan dituzten kapitalari, lehen milioitik gehienez ere 5 milioi arte aplikatuz ateratzen den kopurua. 5 milioitik gora Espainiako Diruetxean indarrean dagoen interesa aplikatuta ateratzen den kopurua.
- c)Ondasun Higiezinetatik datozen errendimendu garbiak. Ondorio hauetarako, urteko diru-sarrera garbitzat joko da, elkarbizitzako unitatearen ohikoak ez diren jabetzen katastro balioaren %10, beti ere horiek errendimendu garbirik sortu ez badute aldi horretan.

9.2.Diru-sarrera gordinei ken dakizkien gastuak:

- a)Etxebizitzaren errenta gastuak.

BERGARAKO UDALA

Espetxeetan preso dauden edo deportatuta dauden pertsonen familiakoentzako banakako garraio-laguntzak.

- b) Elkarbizitzako unitateko kideren baten gaixotasunak sortutako gastuak, behar bezala justifikaturik.
- c) Eskolako gastuak.
- d) Elkarbizitzako unitatearen lehen etxebizitza erosteko eskatu diren maileguetatik sortutako interesak eta amortizazioa ordaintzeko gastuak.
- e) Familiako kideei laguntza pertsonal edo etxekoa ematek sortutako gastuak.
- f) Beste batzuk, behar bezala justifikaturik.

Ez dira kontabilizatuko gastu kengarri moduan:

- a) Garaje errentaren gastuak.
- b) Ohizko etxebizitza erosteko ez diren beste inbertsio batzuk sortutako gastuak.

9.3. Diru-sarrera garbiak kalkulatzeko:

Honela egingo da eragiketa: Diru-sarrera gordin guztiei gastu kengarri guztiak kendu, eta horrela, elkarbizitzako unitatearen diru-sarrera garbiak lortuko ditugu.

10. Banakako dirulaguntzen zenbatekoa.

10.1. Gutxieneko dirulaguntza: Bigarren puntuari ezarri bezala, onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten presoaren familiartekoen, baldin eta dirulaguntzen eskaera bete eta aurkeztu badute, eskubidea izango dute, gutxienez, dirulaguntza hau eman dakien:

Bergararik familiartekoa dagoen espexera zenbat kilometro dagoen (joan-etorria), bider Bergarako Udalean kilometroko ordaintzen denaren erdia, eta kopuru horixe izango da zenbatekoa. Dirulaguntza hori, gehienez ere, hilean behin emango da.

10.2. Dirulaguntza osagarria: Aurreko atalean ezarritako laguntzaz gain, dirulaguntzen eskaerarekin batera, 9. Puntuari zehazten den dokumentazio ekonomikoa aurkeztuz gero eskatzaileak, diru-sarrera garbiak kalkulatu eta gero, eragiketa hau egingo da: Diru-sarrera garbiei I edo II. Tauletan (ikus 1. eranskina) ezarritako kopurua kenduko zaie, elkarbizitzako unitate guraso-bakarrekoak izan edo ez izan, elkarbizitzako unitate horietako kideen arabera.

10.2.1. Kenketa hori egin eta gero, eskaera tramitatzen den urteko LGSren (lanbidearteko gutxieneko soldataren) %100 baino txikiagoa edo berdina bada lortutako kopurua, eskatzaileak eskubidea izango du bi bidaia gehiagorako dirulaguntza jasotzeko, irizpide honetako 1. atalean deskribatutako formularen arabera, puntu honetako 1. atalean araututako gutxienekoaz gain, hau da, hiru bidaiarako dirulaguntza.

10.2.2. Hala ere, eskaera tramitatzen den urteko LGSren (lanbidearteko gutxieneko soldataren) %100 eta %125 artean egonez gero lortutako kopurua, eskatzaileak eskubidea izango du bidaia bat gehiagorako dirulaguntza jasotzeko, puntu honetako 1. atalean deskribatutako formularen arabera, irizpide honetako 1. atalean araututako gutxienekoaz gain, hau da, bi bidaiarako dirulaguntza.

10.2.3. Azkenik, eskaera tramitatzen den urteko LGSren (lanbidearteko gutxieneko soldataren) %125 baino handiagoa izanez gero lortutako kopurua, eskatzaileak eskubidea izango du puntu honetako 1. atalean ezarritako gutxieneko dirulaguntza bakarrik jasotzeko.

11. Deportatuaren senideak.

Deportatuaren senideek urteko diru-laguntza bat jaso dezakete diru-laguntza indibidual moduan, egin beharreko bidaiaren zenbatekoaren erdia hain zuzen ere.

Laguntza hori senide bakar batengatik emango da urteko.

Deportatuak eta familiako onuradunak arautegi honetako 2. puntuari jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

BERGARAKO UDALA

Espetxeetan preso dauden edo deportatuta dauden pertsonen familiakoentzako banakako garraio-laguntzak.

Bakarrik eskaera bat onartuko da deportatu bakoitzeko.

12. Preso eta deportatuen eta elkarbizitzako unitatearen egoeran aldaketak.

Preso eta deportatuen eta elkarbizitzako unitatearen egoeran aldaketak ematen badira (adibidez, beste espetxera batera presoan eraman izana, elkarbizitzako unitatearen konposaketan edo bere egoera ekonomikoan aldaketak), hori gertatu eta gehienez ere 30 eguneko epean Udalarari jakinarazi eta ziurtatu egin beharko dira.

Aurreko pasarteetan jasotakoa betetzen ez bada, Udalak emandako dirulaguntzak itzultzea eskatuko du eta gainera dirulaguntza erretiratu ahal izango dio egoki iruditzen zaion epean.

1. ERANSKINA

Dirulaguntza osagarria zehazteko baremoa:

	I. TAULA / TABLA I Gurasobakarrekoak/Monoparentales	II.TAULA / TABLA II
Elkarbizitzako unitateko kideak/ Miembros unidad convivencial	Zenbatekoa / Cuantía	Zenbatekoa / Cuantía
Kide bat / 1 miembro	LGS/SMI (69.270 Pta 1.999)	LGS/SMI (69.270 Pta 1.999)
2 kide / 2 miembros	130% LGS/SMI	160% LGS/SMI
3 kide / 3 miembros	160% LGS/SMI	190% LGS/SMI
4 kide / 4 miembros	190% LGS/SMI	220% LGS/SMI
5 kide / 5 miembros	220% LGS/SMI	250% LGS/SMI
6 kide / 6 miembros	250% LGS/SMI	280% LGS/SMI
7 kide / 7 miembros	280% LGS/SMI	310% LGS/SMI
8 kide / 8 miembros	310% LGS/SMI	340% LGS/SMI

Dirulaguntza:

Gutxienez bidaia bat hilean; preso guztientzat: Km-a 18* pezetan.

Gehi:

—LGSren %100 arte; 2 bidaia 18 pta./km.

—LGSren %100 eta %125 artean; bidaia bat 18 pta./km.

* Kopuru hori Bergarako Udalean kilometroko jasotzen denaren erdia izango da.

Argibide oharra:

Araudi honen arabera, kartzela batean zigorra betetzen duten familiartekoren bat duten Bergarako bizilagun guztiek izango dute eskubidea hilean bidaia bateko dirulaguntza jasotzeko. Egindako kilometroak bider 18 pta., horixe izango da dirulaguntzaren zenbatekoa, berdin diolarik familia horrek zein errenta maila duen.

Adibidez: Cadiz-eko espetxe batean dagoen preso baten emazteak –berdin diolarik zein errenta maila duen– eskubidea izango du udal dirulaguntza bat jasotzeko, hiri horretara joan-etortzearen gastua konpentsatzeko; 36.000 pezetakoa izango da (joan-etorriko 2.000 km x 18 pta./km). Hilean bidaia bat bakarrik subentzionatuko da. Adibidez, presoaren emaztea eta gurasoak joan badira, pertsona batek bakarrik izango du eskubidea dirulaguntza jasotzeko (emazteak, edo aitak edo amak).

LGS: Lanbidearteko Gutxieneko Soldata.

Bergara, 2001eko otsailaren 12a.—Alkatea.

BERGARAKO UDALA

Espetxeetan preso dauden edo deportatuta dauden pertsonen familiakoentzako banakako garraio-laguntzak.